

DATORREN OSTEGUNEAN, APIRILAREN 18AN, EUSKOTRENEKO BURDINBIDEAREN EUSKAL MUSEOAN TREN HISTORIKOEN 2019KO DENBORALDIA HASTEN DA

Datorren ostegunean, apirilaren 18an, Eusko Jaurlaritzaren Sozietate Publikoa den Euskotreneko Burdinbidearen Euskal Museoko Tren Historikoen 2019ko denboraldia hasten da.

Ohikoa denez, Denboraldia Ostegun Santutik aurrera abiatzen da, jaiegunaldi horretarako diseinatutako zerbitzu bereziarekin. 2019ko Aste Santuan, Lurrun Trenak egunero ibiliko dira, Ostegun Santutik Pazko Asteleheneraino (apirilak 22), biak barne, eta irteerak Museotik 12:00etan eta 17:00etan izango dira.

Aste Santua bukatu ondoren, Domu Santuetako (azaroak 3) zubiraino 2019ko Denboraldiak jarraituko du. Bertan, Lurrun Trenek astebururo eta jaiegunetan ibiliko dira.

Lurrun Trenek AURRERA bezalako lurrun lokomotora beteranoen atarian eramango dituzte. AURRERA lurrun lokomotora Elgoibartik Donostiara doan Trenbiderako 1898an Manchesterren eraiki zen, beranduago Bilbo Donostiarekin lotzen zuen Eusko Trenbideak Konpainian sartu zen. 62 urtetan zehar eskaini zuen zerbitzua eta 1960an erretiratu egin zen.

Horren ondoren, bidaiarien kotxe historikoak ibiliko dira, hala nola, C-2 eta C-4. 1925ean Beasainen CAFek eraikita Urolako Trenbiderako, edo T-52, 1944an Gipuzkoako enpresak ere eraikita Eusko Trenbideak konpainiarako.

Aste Santuan zehar, apirilaren 18tik 22ra, biak barne, Euskotreneko Burdinbidearen Euskal Museoko irekiera ordutegia honako hau izango da: 10:30etik 14:00etara; eta 16:00etatik 19:30era.

Museoak bere instalazioetan Europako trenbide bildumarik hoberenak erakusten ditu, mota guztietako ibilgailuekin: lurrun, diesel eta elektrikoak diren lokomotorak; automotoreak eta bagoi mota desberdinak.

Horrez gain, Euskadiko makina-erreminta multzo osoenetakoa eskaintzen du, Urolako Trenbidearen tailer mekanikoa izandakoaren bitartez, eta XIX. mendearen amaieratik trenetan erabilitako uniformeen erakusketa bikaina eta mundu osoko tren arloko erloju bilduma hoberenetakoa dauzka.

Jendearentzako informazioa

- Burdinbidearen Euskal Museoaren helbidea: Julian Elorza kalea, 8 (20730 AZPEITIA-GIPUZKOA).
- Informazio telefonoa: 943 15 06 77
- Faxe: 943 15 07 46
- Helbide elektronikoa: **museoa@euskotren.eus**
- Webgunea: **www.euskotren.eus**